

42. FITXA Toki-erakundeetan 2030 Agenda bultzatzeko ekintzetara bideraturiko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Toki-erakundeak eta toki-erakundeen taldeak

Sarbide-esteka: <https://sede.mdsocialesa2030.gob.es/>

Erreferentziazko araudia: [Gizarte Eskubide, Kontsumo eta 2030 Agendaren Ministerioaren 2024ko ekainaren 17ko Ebazpenaren laburpena, toki-erakundeetan 2030 Agenda bultzatzeko ekintzetarako dirulaguntzen deialdia egiten duena](#)

Eremuak: Garapen jasangarria

Zenbatekoa: 6.600.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/07/22

Laburpena

2030 Agenda toki-erakundeetan ezartzea, lerrokatzea eta kokatzea sustatzen duten proiektu eta ekimenetarako dirulaguntzak dira.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Honako hauei buruzko proiektuetarako edo ekimenetarako izango dira dirulaguntzak:

- Tokiko mailan **2030 Agenda ezartzeko planak** garatzea.
- Udal-plan estrategikoak 2030 Agendara egokitzeko** proiektuak.
- 2030 Agenda ezartzeko planean** edo/eta beste plan estrategiko batzuetan ezarritako lehentasunei erantzuten dieten jarduketak, baldin eta horien helburua lurraldean 2030 Agendarekin lerrokatutako erantzun bat ematea bada.
- Tokiko herritarrei edo/eta tokiko eragile guztiei zuzendutako **2030 Agendaren inguruan sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko proiektuak**, gaitasunak sortzea barne.
- Tokiko eremuan, **2030 Agenda ezartzen** eta **Garapen Jasangarriko Helburuen** lorpena errealitate bihurtzen lagunduko duten ekimenak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektu bakoitza gauzatzeko gehieneko epea **urtebetekoa** izango da, **2024/06/21etik aurrera**.

Laguntzen zenbatekoa

Gutxienez **20.000 euroko** eta gehienez **250.000 euroko** proiektuak diruz lagundu ahal izango dira.